

aski da! **ERREPRESIORIK EZ!
HAU EZ DA DEMOKRAZIA**

Etxarri Aranatz
uztaila-abuztua-iraila
dosierra

sarrera moduan...

Berrero ere momentu gogorak ari gara bizitzen Euskal Herrian. Errepresioa non nahi aurkitu dezakegu azken garaietan. Adibide batzuk jartzeagatik; hor dauzkagu Otegi eta Olanoren atxiloketa eta kartzelaratzak, hainbat Euskal Herritarren atxiloketak, horien artean Oihan eta Juan Kutx, Zornotza edo Donostiako ekimenen debekuak, eta nola ez Etxarrin abuztuaren 4an eta 10an sufritu genituenak.

Adibideak dira, errepresioaren aldeko apustu nabarmena egiten dutenaren froga garbia. Orain dela 30 urte errepresioa izan da Euskal Herriak bizi duen gatazka konpontzeko erabili duten errezeta bakarra. Gobernu desberdinek orain arte ez dute ezer lortu eta orain ere apustu berdina eta okerra egiten ari dira beste partidu politiko batzuen babesarekin.

Nola daiteke tregua garaian errepresio hori berdin mantentzea? jendea atxilotzea, manifestazioak debekatzea, jendea kolpatzea...? Nola daiteke? Nola da posible hainbat udaletan herritarren hitza debekatu izana? Eta zer konpondu nahi dute gatazkaren soluzioa ekarriko zuen mahaian parte hartzaile izandako eta Ezker Abertzalearen bozeramaile den Arnaldo Otegi kartzelaratzaren badute? Eta Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren bozeramaile den Juan Mari Olanoren atxiloketarekin? Zer konponduko dute?

Ezker Abertzaleak bere eskua luzatu eta gatazka konpontzeko proposamenak eta konpromisoak mahai gainean jarri zituen. Gobernuak ordea dena ukatu eta eta errepresioaz erantzun zuen betiko moduan. Errepresioak ez gaitu inora eramango. Orain arte ez dute ezer lortu sufrimendua handitzea ez bada eta hemendik aurrera berdinak izango dira ondorioak bere horretan jarraitzen badute.

Etxarrin gertatzen dena gure aberri osora proiektatu daitekeen adibidea da. Azken 3 hilabeteetan 2 preso gehiago dauzkagu, guztira 7 preso politiko. Udaletxean bigarren indarrak ez du hitzik. Gure herrian etengabeko kontrol poliziala jasatera behartzen gaituzte, kontrolak noiznahi ditugu herri sarreretan, bideoz grabatzen gaituzte, herria nahi dutenean okupatzen dute inolako arrazoirik gabe, manifestazioak debekatzen dizkigute edozein aitzakia erabiliz, jendea kolpatzen dute, zauritu... Eta kolpeak jaso ondoren, gainera, bi herritar inputatzen dituzte haiek sortutako istiluengatik: Juan Kruz Aldasoro Jauregi eta Koldo Barandalla Goñi urriaren 1ean Nafarroako Auzitegian deklaratzera deitu dituzte inputatu gisa. Jaietako manifestazioan izandako istiluetan, desordena publikoak, eta guardia zibil bati kalteak eta lesioak eragin izana leporatzen diete. Nola da posible???

Bertan daukazuen dossierrak argi eta garbi azaltzen du sarrera honetan aipatzen dugun guztia. Irakurri ezazue, aztertu eta datuak begiratu. Hotzikarak sentitzeko modukoa delako. Eta ondoren gobernuen aurkako errepresioaren kontra altxatzera deitzen zaituztegu, honen aurka ozen garrasi egitera eta ahal duzuen moduan zuen aportazio xumea ematera errepresio latz hau behingoz baztertu dezaten. Denon presioa behar dugu politikariak errepresio honen aurrean beste aldera begiratu ez dezaten. Gure presioak lortuko du honekin amaitzea eta besteek ere gatazkaren konponbiderako konpromisoak hartzea.

Egizue bat gurekin, atxikitu gure manifestuari. Errepresioa ez da bidea! Hau ez da demokrazia!!!

kronologia errepresiboa

● puntu beltzak

uztaila-abuztua-iraila

● uztailak 26:

Juan Kruz Maiza Artola etxarriarra atxilotu zuen frantziar poliziak Rodez-en. 4 egun inkomunikatua izan zuten.

Juan Kutxek tratu txarrak salatu zituen.

Epaiarean aurretik pasa eta gero, Juan Kutx La Santé-n espertxeratu zuten.

Herrian Juan Kutxen aldeko hainbat ekimen burutu ziren eta guardia zibilaren presentzia nabarmena izan zen egun hauetan.

Juan Kutxek ia 30 urte zeramatzan Etxarritik alde eginda eta borokan.

Juan Kutx



● abuztuak 4:

Nafarroako gobernuaren delegaritzak, urtero jaietan larunbatean egiten den errepresaliatuen aldeko manifestazioa debekatu zuen. Haren arrazoia: logo ilegalak agertzen diren kartel batean manifestazioaren deialdia egitea.



19:30ak aldera, 60 guardia zibil inguruk, herriko plaza okupatu zuten 20 urtetan egin den manifestazioa debekatzeko. Guardia zibilek bortizki kargatu zuten herritarren aurka. Kontuan izan gabe plaza jendez gainezka zegoela, haurrak zeudela, adineko jendea...

Udaletxearen programan zegoen zantantzarra ere kolpatzera iritsi ziren. Eta jai giroarekin amaitu eta guda ekarri zuten Etxarrira.

Balantze latza utzi zuten:
20 zauritu baino gehiago. Pertsona bati behatzeko lotailua izorratu zioten eta ebakuntza egin zioten. Porrazoak buruan, bizkarrean, besoan...

Hainbatek nerbio krisia izan zuen. Beldurra eta tentsio uneak bizi izan ziren. Gogorra izan zen benetan.

Manifestazioa bertan behera geratu zen eta kontzentrazio inprobisatu bat burutu zen plazan, guardia zibilen aurrean.

Aipatu behar dugu ere manifestazioa hasi baino ordu bat lehenago herriko sarreretan kontrolak jarri zituztela eta plazako istiluak kameraz grabatu zituela guardia zibilak.

Herritarrek tinko eutsi zioten guardia zibilaren oldartzeari eta alde egin zuten arte haien aurrean geratu ziren manifestazio eskubidea aldarrikatuz eta haien eraso larria salatuz.



● abuztuak 10:

Nafarroako gobernu delegaritzak ostiraleko kontzentrazioa debekatu zuen larunbateko manifestazioaren arrazoi berdinengatik. Azken 6 urtetan, gutxienez, kontzentrazio hau inolako arazorik gabe burutu da.

Larunbatean gertatutakoa kontuan harturik eta pasa zitekeena ongi baloratu ondoren, Etxarriko Ezker Abertzaleak ordu beteko ixilunera deitu zuen eta bat ezik herriko tabernak itxi egin zituzten kaleak erabat hutsik geratu zirelarik.

Aurreikuspena bete zen eta 19:00tan ehundaka guardia zibil herrian sartu ziren dena okupatuz. 200 guardia zibil inguru eta 45 ibilgailu desberdin kontatu zituzten herritarrek.

Okupazioa erabatekoa izan zen eta ordu eta 45 minutu iraun zuen, berriro ere jai giroa zapuztuz eta guda giroa ekarri ziguten.

Herritarren portaera bikainak zerbait larria gertatzea ekiditu zuen.



● abuztuak 24 eta 31:

Bi ostiral hauetan ohiko kontzentrazioak zeuden deituta. Bata gainera azken ostiralekoa zen. Bi kontzentrazioak baimenduak zeuden.

Bi egunetan guardia zibilak herrira etorri ziren. 40 bat guardia zibil 7 ibilgailu desberdinetan. Plazan aparkatu eta okupatu egin zuten.

Kontzentrazioak legezkoak zirenez burutu egin ziren baina beti ere guardia zibilaren probokazio eta intimidazioa jasan behar izan zuten.



● irailak 1:

Polizia frantsesak eta espainiarrak burutu zuten operazioaren ondorioz, Oihan Barandalla Goñi etxarriarra atxilotu zuten Cahors-en.

5 eguneko inkomunikazio luzearen ondoren epailearen aurretik pasa eta Oihan Nanterren espetxeratu zuten.

Hainbat mobilizazio burutu ziren bere askatasuna exijituz.



- **irailak 4:** Oihanen aldeko mobilizazioak zirela eta, guardia zibilak herria kontrolatu zuen.
- **irailak 5:** Oihanen aldeko mobilizazioak zirela eta, guardia zibilak herria kontrolatu zuen.
- **irailak 6:** Oihanen aldeko mobilizazioak zirela eta, guardia zibilak herria kontrolatu zuen.
- **irailak 7:** ostiralero bezala herriko plazan 20:00tan kontzentrazioa burutzen ari zen. Guardia zibilak agertu ziren, 30 bat 6 ibilgailutan. Kaskoak jarri eta bokatzekin jeitsi ziren. Kontzentrazioa erabat legala zen eta burutu egin zen. Baina guardia zibilak bideo kameraz parte hartzaile guztiak grabatu zituen eta intimidatu zituen. Pertsona bat identifikatu zuten mobilarekin argazki bat atera zielako.
- **irailak 8:** arratsaldeko 20:00tan guardia zibilaren bost ibilgailu agertu ziren. 20 guardia zibil inguru jeitsi eta kaskoak eta bokatzak hartuta plaza hartu zuten herritarren harridurarako. Ez zegoen inolako deialdi edo mobilizaziorik. Ordu bat egon ondoren alde egin zuten.
- **irailak 9:** arratsaldeko 20:00tan guardia zibilaren bost ibilgailu agertu ziren. 20 guardia zibil inguru jeitsi eta kaskoak eta bokatzak hartuta plaza hartu zuten herritarren harridurarako. Ez zegoen inolako deialdi edo mobilizaziorik. Ordu bat egon ondoren alde egin zuten.
- **irailak 10:** 3 patrol etengabe ibili ziren herrian zehar bueltaka 20:00ak aldera. Eta kruzeko parkinean beste pare bat egon zen. Ez zegoen inolako mobilizaziorik herrian.
- **irailak 11:** 3 patrol etengabe ibili ziren herrian zehar bueltaka 20:00ak aldera. Eta kruzeko parkinean beste pare bat egon zen. Ez zegoen inolako mobilizaziorik herrian.
- **irailak 12:** 3 patrol etengabe ibili ziren herrian zehar bueltaka 20:00ak aldera. Eta kruzeko parkinean beste pare bat egon zen. Ez zegoen inolako mobilizaziorik herrian.

● irailak 12 (bis):

Estatu Frantsesak Juan Ramon Karasatorre Aldaz, Popi, estraditatu zuen tenporalki. Eta Estatu espainiarren eskuetan utzi zuten.

Estradizio hau 3 hilabete luzatuko daiteke gutxienez eta gero berriro Frantziara eramango dute Bois D'Arcy espetxera.

Oraindik ez dute argitu zein den estradizioa burutzeko arrazoia. Juan Ramon Soto del Real espetxean dago momentu hauetan.



estradiziorik ez!!!

● irailak 13:

Juan Kruz Aldasorok eta Koldo Barandallak notifikazio bana jaso zuten nafarroako auzitegitik. Abuztuaren 4an jaietako manifestazioan izandako istiluak direla eta, urriaren 1ean inputatu bezala joateko eskatzen diete. Dirudienez eskaeraren arrazoia guardia zibilak jarritako denuntziaren ondorioa da. Desorden publikoak, eta guardia zibil bati kalteak eta lesioak eragitea leporatzen diete.

**m
o
t
z
e
a
n**

2 MOBILIZAZIO ERAGOTZIAK: abuztuak 4 eta 10.

ZAURITUAK: 20 zauritu baino gehiago.

HERRI OKUPAZIOAK: 10 alditan herria hartuta.

**KONTROL SOZIALA: 16 egunetan herri sarreretan kontrolak.
2 egunetan jendea bideoz grabatuta.**

IDENTIFIKAZIOAK: 3 pertsona identifikatuak.

2 ATXILOKETA: Juan Kutx eta Oihan.

ENTREGA 1: Popi Madrilen dago.

2 INPUTAZIO: Juan Kruz eta Koldorena.

etxarriko beste preso eta iheslariak

bautista



Bautista Barandalla Iriartek gaixotasun larri eta sendaezina dauka. Legearen arabera kalean egon beharko luke aspaldi baina egun Iruñeako kartzelan jarraitzen du. Bere gaixotasuna sortu eta okertzen duen kartzelan daukate preso, bahiturik. Hilzorira eraman zuen kartzela berean.

bautista etxia!!!

boltio luis



Boltio eta Luis haien etxeetatik ehundaka kilometrotara daude kartzelan. Dispertsio politikak bete betean astintzen ditu haien nola beraien familia eta lagunak. Egoera berean aurkitzen dira Popi, Unai, Juan Kutx eta Oihan. Dispertsio politika presoak birrintzeko eta haien familiak etsipenera eramateko diseinatua dago eta presoek, nola familiek tinko eusten diote egunez egun kartzela politika hiltzaileari.

unai




Unai Parot Navarrori zigorra luzatu diote bidegabeki. Honetarako legeak haien mesederako aldatu dituzte. Eta hain ospetsua egin den "doktrina Parot" lege zikinaz, preso politikoen aurkako mendeku politikan sakondu dute. Kartzelan usteltzera zigortu nahi dituzte eskubide urraketei kareta legala jarrita.



Gatazka luze honetan emakume eta gizon ugari bere sorterrira utzi eta munduan zehar sakabanatuta bizi dira. Arrazoiak desberdinak izan dira: atxiloketa eta torturatik ihesi, kartzelatik ihesi, sorterritik indarrez bidaliak, borrokara alde egin dutenak... Iheslariak euskadin bizi behar dute!!!



jarri banderola balkoian!



amnistia osoa!

abuztuak
4
larunbata

euskal presoak eusko herrira
dagozkien eskubideen jabe

BAUTISTA DEBEKATIA!

manifestazioa 20:30tan



Urtero bezala Etxarriko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak jaietarako manifestazioa deitu zuen. Data garrantzitsu eta hunkigarriak dira hauek gabonekin batera, gure artean jai hauek ospatzeko senide eta lagunak faltan botatzen ditugulako. Jaietan ere haien eskubideen urraketa amaigabea salatzen beharra dugulako tamalez. Urtero egiten den manifestazioa da eta inoiz ez dugu arazorik izan.



Baina aurten gertatutakoa inork ezin izan zuen aurreikusi: manifestazioa burutzeko debekua etorri zen Gobernu Delegaritzatik. Hau ikusita helegitea sartu zen Delegaritzak esandakoaren aurka, baina epaiketa astelehena 6an egingo zela erabaki zuten. Beraz manifestazioa legala izango zen jakin gabe aurrera jarraitzea erabaki genuen urtero bezala.

Jaietako lehen eguna zen. Jendea jaietaz gozatzen ari zen eta manifestaren ordua gero eta gertuago zegoen. 19:30ak aldera guardia zibilak agertu ziren eta kruzeko parkina, kale Nagusia, Larrañeta kalea eta herriko plaza erabat hartu zituzten.



Zanpantzarra agertu zen eta haren atzetik manifestazioari hasiera eman zitzaion. Guardia zibilak orduan pankarta zeramaten personak kolpatu zituen bortizki. Buruan, besoan, bizkarrean... sarraski bat izan zen.



Baina herritarrak ez ziren kokildu eta tinko geratu ziren guardia zibilen aurrean. Manifestazioa ezin izan zen egin baina kontzentrazio inprobisatua burutu zen guardia zibilek alde egin zuten arte.

Abuztuaren 6an epaiketa egin zen Nafarroako auzitegian eta **EPAILEEK ARRAZOIA EMAN ZIGUTEN!!!** 4ko manifestazioa legala zela esan zuten eta ostirala 10ean deitua zegoen kontzentrazioa berriz, debekatu egin zuten.



Beraz azkenean manifestazio legal batean 20 zauritu inguru eragin zituzten, jaiak bi orduz zapuztu, nerbio krisiak eragin, izua zabaldu... Bideoan jende guztia grabatu, kontrolak jarri...

Horrelako jokabideek argi eta garbi erakusten dute zein den bizi dugun gatazkaren aurrean gobernuak hartzen duten irtenbidea. **ERREPRESIOA**. Manifestazio legal batean 20 zauritu baino gehiago eta gainera Juan Kruz Aldasoro eta Koldo Barandalla Etxarriarrek inputatu bezala urriaren 1ean Nafarroako auzitegira joan beharko dute deklaratzera... **aski da!!!**



eta udalak hau onartu zuen...

ETXARRI ARANATZKO FESTETAN EUSKAL PRESO ETA IHESLARI POLITIKOEN ESKUBIDEEN ALDEKO MOBILIZAZIOEN DEBEKUEN ONDORIOZ GERTATURIKOEN INGURUKO

MOZIOA



- 1.- Etxarri-Aranazko Udalak indar biziz salatzen du Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkartzaren jokabidea, herriko festetarako deituta zeuden euskal preso eta iheslari politikoaren eskubideen aldeko mobilizazioen debekua agindu duelako eta bi egun ez Etxarriko herria Guardia Zibilekin okupatzea agindu duelako.
- 2.- Etxarri-Aranazko Udalak adierazten du Euskal Preso eta Iheslari Politikoaren eskubideen aldeko mobilizazioak debekatzearekin Espainiako Gobernuaren ordezkartzak Etxarriko herritarren oinarri oinarrizko eskubide zibil eta politikoak urratu dituela (adierazpen askatasunerako eskubidea eta manifestaziorako eskubidea hain zuzen ere).
- 3.- Etxarri-Aranazko Udalak indar biziz salatzen du abuztuaren 4ean Guardia Zibilak Preso eta Iheslari politikoaren eskubideen alde modu baketsu eta demokratikoan mobilizatzen ari zirenen aurka zuzendu zuen eraso. Eraso honen ondorioz eragindako kalte material eta pertsonal guztien erreparazioa eskatzen dio Etxarri-Aranazko Udalak Espainiako Gobernuaren ordezkartzari. Guardia Zibilaren erasoan zaurituak suertatu ziren herritarrak kalte-ordainak eskatzeko abiatuko dituzten ekinbide judizialekin akusazio gisa lekukotzea erabakitzen du Etxarri-Aranazko Udalak.
- 4.- Etxarri-Aranazko Udalak adierazi nahi du Guardia Zibilak ez duela tokirik ez Etxarri-Aranatzen eta ezta ere Euskal Herriko bizitzan. Etxarri-Aranazko Udalak Demokrazian eta bakean bizitzeko behar beharrezkoa dela Guardia Zibila Euskal Herriatik erretiratzea adierazten du.
- 5.- Etxarri-Aranazko Udalak adierazten du bat egiten duela Euskal Preso Politikoaren eskubideak jasotzen dituen dekalogoaren aldarrikapenarekin. Horiek dira euskal preso politikoei aitortu behar zaizkien eskubideak: (Etxeraten dekalogoaren osorik)